

Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordearen *XXI. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak*: proposamenaren euskarrien araketa kritikoa

Daniel Escribano Riera
Soziologian lizentziatua

Eusko Jaurlaritzako EAB Euskararen Aholku Batzordearen *XXI. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak* izeneko dokumentua du aztergai artikulu honek. EAE Euskal Autonomia Erkidegoko marko juridiko-linguistikoaz zein azken hamarraldietako bilakaera soziolinguistikoaz agiriak dakarren interpretazioaren azterketa kritikoa da artikuluaren ardatza. Bi ikuspegi horietatik begiraturik, dokumentuak oinarrizko akatsak dituela nabarmentzen da, eta interes politikoak zorroztasun analitikoari gailendu zaizkion susmoa agertzen da.

GAKO-HITZAK: Hizkuntza-politika · Hizkuntza-gatazka · Hizkuntza-mendekotasuna · Euskara.

In this paper, the Basque Government's *Basis for a language policy for the early 21st century* written by the Basque Language Advisory Board is studied. The paper analyses Basis' interpretation of the ruling legal framework in the Basque Autonomous Community as well as the sociolinguistical evolution in the Basque Country in the last decades. The author shows how the Advisory Board's proposal contains basic errors from both perspectives and how political interests have prevailed over analytical consistency.

KEY WORDS: Language policy · Language conflict · Language subordination · Basque.

Jasotze-data: 2010-09-03. *Onartze-data:* 2010-12-20.

Aurkezpena*

Artikulu honek Eusko Jaurlaritzako EAB Euskararen Aholku Batzordearen *XXI. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak* izeneko dokumentua du aztergai. EAB Eusko Jaurlaritzaren 5/1982 Dekretuak, urtarrilaren 11koak, sorturiko erakundea da, euskararen gizarte-erabilera hedatzeko diharduten erakundeen bilgune aritzeko asmoz. 156/1996 Dekretuak, azaroaren 24koak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari atxiki zion haren jardunaren ardura; eta, bertzeak bertze, Eusko Jaurlaritzari hizkuntza-politikarako neurriak proposatzeko eginkizuna ezarri zion EABko Batzorde Osoari. Arakatuko dugun dokumentuaren sorburua EABko 2007ko urriaren 25eko osoko bilkuran dago, non batzordeak ebatzi baitzuen «euskara indarberritzen jarraitzeko mugarriak zedarritzea, nondik gatozen, non gauden eta nora egin nahi dugun» arakatzeko txostena prestatzea (EAB, 2009: 11). Patxi Baztarrika orduko Hizkuntza Politikarako sailburuordeak aditzera eman zuenez, ahalik eta «gizarte-adostasun» handiena ahalbidetzea ezarri zuen EABk agiriko proposamenen irizpide nagusi (EAB, 2009: 11).

2008ko apirilaren 29an oinarritzko txostena zabaldu zuen batzordearen lantalde iraunkorrak, eta ezagutzera eman zien EABko gainerako batzordekideei zuzenketak aurkez zituzten. Horrez gain, zirriborroa Euskara 21 webgunean ere eseki zuten, herritarren iritzia jasotzeko asmoz. Ondoren, batzordearen lantalde iraunkorrak berak behin betiko txostena taxutu zuen, eta 2009ko otsailaren 6ko EABren osoko bilkurak oniritzia eman zion. Testuak idatzi zituen batzordea edo lantaldea honako hauek osatu zuten: Aurelia Arkotxa euskaltzain osoak, Lore Erriondo Udako Euskal Unibertsitateko zuzendariak, Alberto Lopez Basaguren konstituzio-zuzenbideko katedradunak, Eneko Oregi euskaltzain osoak, Pello Salaburu euskal filologiako katedradun eta euskaltzain osoak, Erramun Osa orduko Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinaziorako zuzendariak, eta Patxi Baztarrika sailburuordeak berak. Erramun Osa aritu zen idazkari-lanetan, eta Baztarrika lantaldeko buru izan zen. Baztarrikaren erranetan, txosten horiek idazteko prozesua izan da «euskararen erabilera bultzatzea helburu duen hizkuntza-politikaren habeak berritzeko gogoeta-saio kolektiborik irmoena eta aberatsena» (Baztarrika, 2009: 216, 27. oin-oharra).

Dokumentua aztertzean, honako bi analisi-dimentsio baino ez ditut hartuko aintzat: Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) marko juridiko-linguistikoaren zein EAEren sorreraz geroztiko bilakaera soziolinguistikoaren interpretazioa.

1. Marko juridiko-linguistikoa

Behin betiko txostenaren hasieran bertan adierazten dute erredakziogileek hiru direla «nahitaez gertatu behar diren faktoreak» hizkuntzaren «biziberritze-prozesuaren arrakasta» bermatze aldera. Hain zuzen, «lege-marko egokia», «hizkuntza-politika eraginkorra eta baliabideak» zein «herritarren atxikimendua»; horiek ditu EABk ezinbertzeko faktoretzat (EAB, 2009: 19).

* Egileak eskertzen die Miren Segurolari, Andoni Sarriegiri, Iñaki Azaldegiri zein Iñaki Arrutiri zenbait dokumentu helarazi izana. Horrez gain, esker onak erakutsi nahi dizkie Trini Imazi eta Andoni Sarriegiri, testuaren zuzentasuna hobetze aldera eginiko ekarpenengatik. Artikulu honen edukiaren ardura, aldiz, egileari baino ez dagokio.

Aipatu lege-markoari dagokionez, ordea, behin betiko txostenean ez dago inolako garapenik, ez marko horrek bildu beharko lituzkeen ezaugarrien inguruan, ezta EAEkoak dituenen gainean ere. Eskasa bada ere, halakorik edireteko oinarrizko txostenera jo behar dugu. Atal honetan, behin-behineko txostenean jorraturiko bi kontzeptu arakatuko ditut: euskararen ofizialtasuna, parekotasun juridikoaren ikuspegitik (1.1.), eta euskararen berezkitasuna (1.2.).

1.1. Parekoa ez den ofizialtasuna

Oinarrizko txostenean, euskararen ofizialtasuna «gaztelaniaren ofizialtasunaren pare-parekoa», «berdina» dela dio batzordeak (EAB, 2008: 28). Alta, interpretazio okerra da hori. Izan ere, 1978ko Espainiako Konstituzioaren 3.1 artikulua espainola jakiteko betebeharra ezartzen du, eta «Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak» izatea aurreikusten badu ere (3.2 art.) —betiere hizkuntza horien lurralde-eremu soilean eta autonomia-estatutuek jasotzen duten moduan—, ez du hizkuntza horien ezagutzaren betebeharririk aipatzen. Hori dela-eta, Konstituzioaren baitan betebeharrak hori espainolari baino ez dagokiola nabarmendu zuen Espainiako Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 26ko 84/1986 epaiak, gailegoa ezagutzeko betebeharra ezartzen zuen Galiziako Parlamentuaren ekainaren 15eko 3/1983 legearen 1.2 artikulua bertan beheiti utzi zuenak (2. OJ oinarri juridikoan). Printzipio bera ezarri zuen Eusko Legebiltzarraren euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen 8.3 artikulua (beheitiago arituko gara artikulua horretaz, ikus 1.2) baliogabetu zuen data bereko 82/1986 epaiak. Izan ere, Konstituzioaren 3.1 artikuluz Auzitegiak eginiko interpretazioaren arabera, ez dago «deber de conocimiento del euskera en zona alguna del territorio del Estado» (10. OJ). Alegia, ezagutzeko betebeharra epaiaren erredakziogileak *ofizialkide* deritzen gainerako hizkuntza ofizialei ezin zaiela eman ebatzi zuen Auzitegiak. Erran gabe doa, interpretazio horren arabera, espainola ofiziala izateak eta gainerakoak ofizialkide baino ez, ofizialtasun handiagoa ematen diola espainolari. Espainiako Konstituzioak ezarritako araubideari dagokionez, arras zehatza da Santiago Abascal PP Alderdi Popularreko EAEko legebiltzarkideak eginiko irakurketa: «el bilingüismo es una opción, no una obligación», zeren eta «sólo del castellano se establece constitucionalmente el deber individualizado de conocimiento»¹.

Kataluniako bi hizkuntza ofizialak jakiteko betebeharra ezartzen duen Kataluniako Autonomia Estatutuaren erreformatzeko uztailaren 19ko 6/2006 Lege organikoaren 6.2 artikulua interpretazio hori hankaz goiti jarri duela ihardesten ahal izanen luke irakurle erneak (EABk, baina, ez dio argudio horri heldu). Alta, estatutu horretako zenbait artikuluren aurka jarriko helegitearen harirat Espainiako Konstituzio Auzitegiak ebatziriko ekainaren 28ko 31/2010 epaiak argi eta garbi gezurtatu du balizko argudio hori: «El art. 6.2 EAC sería inconstitucional y nulo en su pretensión de imponer un deber de conocimiento del catalán equivalente en su sentido al que se desprende del deber constitucional de conocimiento del castellano». Auzitegiak artikuluari onargarri baderitzo, ordea, katalanez jakiteko «betebeharrak» hori «individual y exigible» baino ez delako da, «de naturaleza distinta al que tiene

1. 2008ko apirilaren 18ko Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran Santiago Abascalek egindako adierazpena. Ikus <http://www.parlamento.euskadi.net/pdfs_publici/2/08/000087.pdf>.

por objeto al castellano de acuerdo con el art. 3.1 CE» dena, eta, horrenbertzez, «jurídicamente exigible con carácter generalizado» ez dena (14.a OJ). Izan ere, magistratuek «el equilibrio inexcusable entre dos lenguas igualmente oficiales y que en ningún caso pueden tener un trato privilegiado» (14.a OJ) aldarrikatzen badute ere, argi dago, Orwellen baserriko animalien antzera, hizkuntza bat bertzeak baino ofizialtasun «berdinagokoa» dela. Eta, Iñaki Agirreazkuenaga administrazio-zuzenbideko katedradunak nabarmendua duen bezala, «auzitegiek berdintasun hori gogorarazten dutenean beti euskararen [zein gaztelania ez den hizkuntza ofizial ororen] kalterako izaten da» (Agirreazkuenaga, 1996: 229). Horrenbertzez, Xavier Vilhar Trilhok ohartarazi bezala, espainolaz bertzeko hizkuntza «ofizialkideen» estatutu juridikoa izendatzeko, *ofizialkideetasunaz* aritu beharrean, *azpiofizialkideetasunaz* hitz egin beharko genuke (Vilhar Trilho, 1986: 58).

Hizkuntza-erkidegoen eskubideen berdintasunean funtsaturiko eleaniztasun historikoko gizarteetan guztiz bertzenazko araudiak ezarri dituztela ohartarazi behar dugu. Izan ere, norbanako hizkuntza-eskubideak babestea hobetsi dutenek eredu juridiko-linguistikoa *personalera* jo izan dute. Eredu horretan onaturiko hizkuntzak Estatuko lurralde osoan dira ofizialak, ez soilik hizkuntzaren lurralde-eremuan. Horrenbertzez, administrazio publikoekiko harremanetan, bederen, ekintza komunikatiboa herritarrak aukeraturiko hizkuntza ofizialean gauzatzea eskatzen ahal du, tokiko errealitate soziolinguistikoa goiti-beheiti. Horixe da Kanadan indarrean dagoen hizkuntza-eredua. Bertze eredua *lurraldekoa* da, *hizkuntza-eskubide* kontzeptua gizabanakokoa ulertzen ez duena, erkidegokoa baizik. Eredu horretan marko juridiko-linguistikoa lurraldeka dago zatitua, eta barruti bakoitzeko hizkuntza ofizial bakarra dago. Suitzan eta Belgikan (Bruselako eskualdean izan ezik) du indarra eredu horrek.

Rafael Lluís Ninyoles soziolinguistak nabarmendu duenez, bi eredu horietako ezaugarriak ditu Espainiako Erresuman ezarritakoak. Izan ere, *lurraldekoa* da espainolaz bertzeko erkidegoen hizkuntza-eskubideak euren lurralde-eremura mugatzen dituen eta espainolaren lurralde-eremu historikoan norbanako hizkuntza-eskubiderik aitortzen ez duen heinean. Aldi berean, alta, *personalera* da hizkuntza ofizialkideen lurralde-eremuetan norbanako hizkuntza-eskubideak onartzen dituen neurrian. Hau da, espainolaz bertzeko hizkuntza-erkidegoen lurraldeetan bada espainolez zein bertako hizkuntzaz jarduteko norbanako eskubidea (eredu personala). Espainolaren lurralde-eremu historikoan, aldiz, hizkuntza-erkidegoaren eskubidea gailentzen zaie norbanako eskubideei, eta, hortaz, espainol hutsa baino ez dago erabiltzerik (lurralde-eredua) (Ninyoles, 1994: 154).

Beraz, honako bi konklusio hauek ateratzen ahal ditugu Espainiako Konstituziotik ondorioztaturiko hizkuntza-ofizialtasunaren araubidetik: (a) espainola Espainiako Erresumako lurralde osoan da ofiziala; gainerako hizkuntzak, berriz, ofizial, zein bere eremuan baino ezin dira izan eta soilik autonomiako legegilearen ekimenez, eta (b) espainola da legez Espainiako meneko guztiek jakin beharreko hizkuntza bakarra. Bistan da lege-diseinu hori helburu soziolinguistikoa konkretuei dagoela atxikita. Hona hemen zein diren xede horiek: espainola nahitaezkoa izatea Espainiako Estatuko lurralde orotan, gainerako hizkuntzen ezagutza aukeraketan utziz (Abascalaren erranetan, «elebitasuna aukera soila» izatea) eta erabilera zein bere lurralde-eremura mugatuz.

Harrigarria dirudien arren, eztabaida juridiko zein soziolinguistiko horiei buruzko aipamenik ez dago EABren dokumentuan. Are gehiago, oinarritzko txostenak «egokia», bertzerik gabe, deritzo Espainiako marko juridiko-linguistikoari (EAB, 2008: 26).

1.2. Ondoriorik ez dakarren berezkotasuna

Autonomia-legegileek nahitaez Espainiako marko juridiko linguistikoaren baitan jardun behar dutelarik, ulergarria gertatzen ahal da marko horren interpretaziorik baikorrena egiten saiatzea. Nagusiki kontrakoa den marko horri ahalik eta etekin handiena ateratze aldera sartu du, hain zuzen ere, *hizkuntzaren berezkotasun* kontzeptua zenbait autonomia-legegilek. Nafarroan izan ezik (Nafarroako Parlamentuaren euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Legearen 2.1 artikulua euskarari zein espainolari baiteritze berezko), berezkotasuna hizkuntza ofizialkideari baino ez diote onartu legegile horiek.

Kontzeptualki, *berezko hizkuntza* lurraldean historikotasunik handiena duena bada ere, kontzeptuaren garrantzia ez datza esanahian, berezkotasunetik eratorririko ondorio juridikoetan baizik. Kontzeptuaren estreinako arrastoa 1933ko Kataluniako Barne Araubidea xedatzen duen Estatutuan kausitu dugu. Arau horretan berezkotasunak zer-nolako funtzioa zuen jabetzeko 1931ko Autonomia Estatutuaren egitasmoak katalana hizkuntza ofizial bakarra izatea aurreikusten zuela ohartarazi behar da. Espainiako Errepublikako Gorteek, ordea, espainolarekin partekaturiko ofizialtasuna inposatu zuten. Testuinguru horretan, katalan hutsezko esparruak funtsatze aldera sartu zuen *berezkotasun* kontzeptua katalan legegileak, ofizialtasunarena bigarren mailan utziz. Hau da, Espainiako legegileak ofizialtasuna katalanak soilik izatea galarazirik, autonomia-legegilearen estrategia juridikoa katalanari baino ez zegokion *ad hoc* kontzeptua (*berezko hizkuntza*) legedian sarraraztea izan zen, eta hizkuntza-politika kontzeptu berri horretatik eratortzea.

Horren arabera, ofizialtasuna norbanako hizkuntza-eskubideei baino ez dagoen kontzeptua da (administrazio publikoekin herritarrak aukeraturiko hizkuntza ofizialean jarduteko eskubidea, erraterako), eta berezkotasuna hizkuntza-erkidegoaren eskubideei, erkidegoaren lurralde-eremuan hizkuntza hori nagusi bilakatzeko eskubidea, finean (Solé i Durany, 1996: 106-119). Doktrina-ikuspegitik, ezin argiagoa da Balear Uharteetako Parlamentuaren apirilaren 29ko hizkuntza-normalkuntzari buruzko 3/1986 Legearen aitzin-solasa: «l'oficialitat de la llengua catalana es basa en un estatut de territorialitat, amb el propòsit de mantenir la primacia de cada llengua en el seu territori històric». Horren arabera, «[l']oficialitat del castellà, establerta per la Constitució en tot l'Estat, es basa en un estatut personal, a fi d'emparar els drets lingüístics dels ciutadans, encara que la seva llengua no sigui la pròpia del territori».

Gaur egun, Kataluniako legedia da hizkuntza-berezkotasuna gehien garatu duena. Hagitz argigarria da Kataluniako Parlamentuaren hizkuntza-politikari buruzko urtarrilaren 7ko 1/1998 Legearen 2. artikulua, katalanaren berezkotasunetik eratortzen diren ondorioak zehazten dituena. Hain zuzen ere, «el català, com a llengua pròpia, és: a) la llengua de totes les institucions de Catalunya, i en especial de l'Administració de la Generalitat, de l'Administració local, de les corporacions públiques, de les empreses i els serveis públics, dels mitjans de

comunicació institucionals, de l'ensenyament i de la toponímia». Katalan hutsezko erabilera-esparruak funtsatzeko *berezkotasun* kontzeptuaren balio juridikoa are argiago jaso du 6/2006 Lege organikoaren 6.1 artikulua: «Katalana da Kataluniako berezko hizkuntza. Hala, bada, bai herri administrazioetan bai Kataluniako herri-komunikabideetan katalana da usuen *eta lehenen* erabiltzeko hizkuntza» (azpimarra nirea da). Espainiako Konstituzio Auzitegiaren 31/2010 epaiak azpimarraturiko hitza indargabetu du, «[l]a definición del catalán como lengua propia de Cataluña no puede justificar la imposición estatutaria del uso preferente de aquella lengua» argudiatu (14.a OJ). Hala ere, ebazpen horrek ez dio Kataluniako administrazio publikoen hizkuntza-politikaren funtsatzeari ezertan eragiten, eta hori honako bi arrazoi hauengatik:

- a. Epaiak goiti-beheiti, artikulua ez dioelako Kataluniako administrazioek elebiz jardun behar dutenik. Aitzitik, administrazioetan eta hedabide publikoetan, katalana baino ez du aipatzen erabili beharreko hizkuntzatzat, epaiak lehentasunaren indargarria ezabatu badu ere².
- b. Epaiak *imposición estatutaria* baino ez duelako aipatu. Estatutuak, ordea, aurretik finkatua zegoen printzipioa, oraino indarrean dagoena, baizik ez du jaso. Printzipio horrek Estatutu-mailako babesik ezin izatea baino ez dakar epaiak; hau da, Kataluniako legegileak printzipio horren aurkako hizkuntza-politika ezartzen ahalko lukeela Estatutua aldatu gabe³.

EAEko legedian, abenduaren 18ko 3/1979 Lege organikoaren 6.1 artikulua nahiz Eusko Legebiltzarraren euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen 2.ak deritzote *berezko* euskarari. Horrez gain, Espainiako Konstituzio Auzitegiak baliogabeturiko euskararen gaineko Legearen 8.3 artikulua «botere publikoek toki Administrazioaren eremuan euskara bakarrik» erabiltzea ahalbidetzen zuen, betiere udalerraren egoera soziolinguistikoaren arabera eta aukera hori ezein kontzeptutan funtsatzen ez bazuen ere. Alabaina, Legearen 8.1 artikulua EAEn «kokatutako herri-aginteei emandako arau-xedapen zein ebazpen ofizial oro» bi hizkuntza ofizialetan zabaltzera derrigortzen du. Legearen 8.2 artikulua «interesdun partikularrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea aukeratzen badute» hizkuntza hori bakarrik erabiltzea baimentzen du. Beraz, hasieratik bertatik honako arazo hauek zekartzen 10/1982 Legeak: (a) espainola-euskara elebitasuna ezartzen zuela arau orokor administrazio publikoen hizkuntza-erabileretarako; (b) ez ziola inongo lehentasunik ematen euskarari; (c) administrazioak euskara hutsez aritzea he-

2. Interpretazio bera egin du Eva Pons konstituzio-zuzenbideko irakasleak, xedapena oinarritzen duen arrazoibideak *berezkotasun* kontzeptuaren zentzua, orain arte Kataluniako legedian aski argia zena, ilundu egiten duela ohartarazten badu ere (Pons Parera, 2010).

3. Bertzalde, epaiak hizkuntza-legediaren gaineko doktrinaren inguruko akats nabarmena dakarrela ohartarazi behar dugu. Izan ere, magistratuen erranetan, «[e] carácter propio de una lengua española distinta del castellano es, por tanto, la condición inexcusable para su reconocimiento como lengua oficial por un Estatuto de Autonomía» (14.a OJ). Alta, Espainiako Konstituzioaren 3.2 artikulua «Espainiako beste hizkuntzak ofizialak» izango direla dio, *berezkotasun* kontzeptuari inolako aipamenik egin gabe; are gehiago, *berezko hizkuntza* terminoa ez da agertu ere egiten Konstituzioan. Horrez gain, Nafarroako Foru Eraentza Berrezartzeari eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege organikoaren 9.2 artikulua «Nafarroako eskualde euskaldunetan» euskarak ere «hizkuntza ofizialaren maila» izanen duela dio, berezkotasuna aipatu ere egin gabe.

rritarren borondate soilaren esku uzten zuela; eta (d) aukera hori, berezkotasunetik eratorri beharrean, arau orokorrari eginiko salbuespen gisa aurreikusten zuela. Hori dela-eta, Agirreazkuenagak (2005: 13) ohartarazi duenez, Espainiako Konstituzio Auzitegiak 8.3 artikulua indargabetu zuenean, euskarari buruzko legea bera bilakatu zen oztopo administrazio publikoek euskara hutsez zein euskarari lehenatasuna emanaz jarduteko.

EAEko erabiltzaileen eta kontsumitzaileen estatutua arautzen duen Eusko Legebiltzarraren abenduaren 22ko 6/2003 Legeak ez ditu arazo horiek konpondu, baizik eta, hein batean bederen, areagotu egin ditu. Izan ere, kontsumitzaileei onartzen dizkien hizkuntza-eskubideak ofizialtasun kontzeptutik eratortzen ditu, berezkotasuna zeharo alboratuz. Euskara hutsezko nahiz euskararendako lehenatasunezko erabilera-esparruak ezartzeari uko egitea dakar horrek. Are gehiago, euskara hutsezko esparruak sortzeko aukera bera debekatu egiten du, erakunde publikoak, erakunde horiek diruz lagunduriko enpresak zein ondasun eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak bi hizkuntza ofizialak erabiltzera derrigorturik zenbait arlotan (38.-40. art.). Halako enpresetan lege horrek dakartzan hizkuntza-xedapenak garatzen dituen Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 1eko 123/2008 Dekretuak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzkoak, irizpide bertsuari jarraitu dio (5.-12. eta 17.2 art.). Kataluniako Parlamentuaren 1/1998 Legearekin alderaturik, begi-bistakoa da gibelerat emandako pausoa dela. Errate baterako, tokien errotulazioari eta informazioari dagokienez, «almenys, en català» [*katalanez, bederen*] (32.3 eta 36.4 art.) jartzeko baino ez du agintzen Kataluniako Legeak. EAEko legeak preskripzio-era hori euskarari aplikatzen dion kasu bakarrean, EAEn ekoitziriko produktuen etiketetan (41.3 art.), ez du aipatzen euskararen berezkotasuna xedapenaren oinarri. Aitzitik, xedapen horrek arau orokorrari eginiko bertze salbuespen baten antza handiagoa du berezkotasunetik eratorririko ondorio arruntarena baino.

Udalen arloan baino ez dute berezkotasun-kontzeptua oinarri juridiko gisa garatu EAEn. Izan ere, 1989ko otsailaren 1ean Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) Udalbatzak onetsiriko Udal-arauak, udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko xedea zuenak, ezin argiago jasotzen zuen *berezko hizkuntza* eta *lehenatasunezko hizkuntza* kontzeptuen arteko lotura: «Lasartearrok geure herriko hizkuntza propioa euskara dugunez, Lasarte-Oriako Udaletxean hizkuntza normalena eta erabiliena euskarak izan behar du». Nahiz eta Lasarteko orduko egoera soziolinguistikoak euskara hutsezko erabilera funtziorik sinbolikoenetarako baino ez zuen bideragarri egiten, udal-erakundeen, udalak kontratatuturiko enpresen zein udalak diruz lagunduriko zenbait erakunde pribatu motaren hizkuntza-erabileretan euskara ere sarrarazteko eta euskarari lehenatasunezko trataera emateko agintzen zuen arau horrek⁴. 2005eko abenduaren 1ean Azpeitiko (Gipuzkoa) udalbatzak onarturiko ordenantzak ere jaso zuen *berezkotasan* kontzeptua. Izan ere, udalean eta

4. Handik gutxira, 1989ko apirilaren 19an, Beasaingo (Gipuzkoa) udalbatzak euskararen erabilera sustatzeko eta normaltzeko onetsiriko udal-ordenantza onartu zuen. 1. artikulua euskara «euskal hiritarrentzako nahiz enplegatuentzako zerbitzu-hizkuntza ez ezik, lan-hizkuntza ere bihurtzea» helburu ezarri zuen, ahal den kasu orotan euskara hutsez aritzeko agintzen zuen, eta gainerakoetan elebiz, betiere euskarari lehenatasunezko trataera emanaz. Hala ere, Beasaingo ordenantzak ez zituen xedapen horiek *berezko hizkuntza* kontzeptuan funtsatu, *hizkuntza premiatsuenaren aldeko elebitasun*

udalerrian euskararen erabileraren sustapena eta normalizazioa bermatzea helburu zuen arauak euskarari Azpeitiko hizkuntza-berezkotasuna aitortzeaz gain, «bere erakunde publiko guztietakoa» ere badela zehazten zuen (2. art.). Autonomia Estatutuaren 6.1 artikulua «hizkuntza ofizialen maila» («gaztelaniarekin batera») aitortzen dio euskarari, «Euskal Herriaren berezko hizkuntza» den heinean. 10/1982 Legearen 2.ak euskara «Euskal Herriko hizkuntza propioa» dela baizik ez du jasotzen. Alta, ez Autonomia Estatutuak ezta Euskararen Legeak ere ez dute zehazten zertan datzan berezkotasuna; Lasarte-Oriako zein Azpeitiko arau horiek, aldiz, argi lotu zuten berezkotasuna nor bere udalerrian erakunde publikoen zein udalak kontrataturiko edota diruz lagunduriko erakundeen hizkuntza-erabilerekin. Azpeitiko 2005eko arauaren 3. artikulua arabera, euskara «Azpeitiko udal-administrazioaren menpe dauden udal-zerbitzu guztietako lan-hizkuntza izango da». Euskara bakarrik aipaturik, nahikoa argia da lehentasuna ematen zaiola euskarari erakunde horien hizkuntza-erabileretan, eta hori da, hain zuzen, *hizkuntza-berezkotasunaren* kontzeptuak duen zentzua: berezkotasuna aitortzen zaion hizkuntzari erabilera-esparru eskusiboak edo lehentasunezko erabilera-esparruak ahalbidetzea. Berezkotasunaren eta hizkuntza-lehentasunaren arteko harreman kausala ezin argiago jasotzen du ordenantzaren 18.1 artikulua: «Udal-organo guztietako ohiko lan-hizkuntza euskara izango da, udalerriko berezko hizkuntza delako». Doktrina-ikuspegitik, aitzin-pauso handia da berezkotasuna hizkuntza-erabileren oinarri gisa sarraraztea Euskal Herriko araudian ere, hori euskara hutsezko erabilera-esparruak funtsatzeko euskarri sendoa baita. 2009ko abenduaren 3an udalbatzak onetsiriko arau berriak, Azpeitiko Udalean eta udalerrian euskararen normalizazioa eraginkorki bermatzeko udal-ordenantza, gainera, hobetu egin du 2005eko arauaren artikulua beraren (18.1en) testua, «Euskal Herriaren berezko hizkuntza delako» baietsiz. Izan ere, berezkotasunaren oinarri juridikoa Euskal Herria hedatzeak euskara hutsezko erabilera-esparruak sortzeko aukera zabaltzen du, hizkuntza-erabilerak lekuan lekuko egoera soziolinguistikotik askaturik.

Beraz, argi dago berebiziko garrantzi juridikoa duela *berezkotasun* kontzeptuak, euskara hutsezko zein euskararendako lehentasunezko erabilera-esparruak oinarritze aldera. Bada, hona hemen nola ulertu duten berezkotasuna EABren oinarriko txostenaren erredakziozileek (EAB, 2008: 28):

Hizkuntza propioa zer da, beraz? Ez da, bistan da, Euskal Herriko hizkuntza bakarra edo, gutxienez, nagusia. Euskal Herriko zenbait eskualdetan euskara baino bertakoagoa da eta/edo izan da gaztelania. Euskara ez da, ondorioz, Euskal Herriak duen/Euskal Herrian mintzatzen den hizkuntza bakarra. Bai, ordea, Euskal Herrian beste inon mintzatzen ez dena. Euskara ez da hizkuntza propioa gure hizkuntza bakarra delako, gurea ez beste inorena delako baizik.

aurreratzaile zeritzonean baizik. Arazo bera dakarte hurrengo urteetan hizkuntza-erabilerak arautzeko onetsiriko udal-ordenantza gehienek, baita euskarari nolabaiteko lehentasuna ematen diotenen ere, hala nola 1990eko ekainaren 29an Tolosako (Gipuzkoa) udalbatzak baietsirikoak (3. art.) zein 2009ko abenduaren 21ean Igorreko (Bizkaia) udalbatzak onaturikoak (1. art.). Arau horien guztien xedapenen edukien arteko aldeak alde, berezkotasunari oinarri egokiagoa deritzogu, berezkotasunak lurralde-eredura hurbiltzen gaituelako, hizkuntzari erabilera-esparru eskusiboak bermatzen dizkion eredura, egoera soziolinguistikoa goiti-beheiti. Hizkuntza premiatsuenaren aldeko elebitasunaren printzipioa edo delako *diskriminazio positiboa*, aldiz, eskasak gertatzen ahal dira euskara hutsezko erabilera-esparruak funtsatzeko berreuskalduntze-prozesua aitzinerat joan arau.

Katalanoi aski ezagunak suertatzen zaizkigu argudio horiek, Kataluniako administrazio publikoen hizkuntza-politikaren aurkako taldeek ageturiko arrazoibide berbera baita. Izan ere, prestatzen ari zen hizkuntza-politikari buruzko legearen (1/1998 izanzen zena) edukia mugatzea xede zuen Foro Babelak 1997ko apirilean karrikaturiko agiriak honako hau zioen:

Según el Estatuto de Autonomía, el catalán es la lengua propia de Cataluña. Esto significa que la sociedad catalana tiene en la lengua catalana un elemento que la identifica, la especifica culturalmente y la diferencia de otras comunidades. El texto estatutario excluye, sin embargo, que el castellano sea una lengua impropia o jurídicamente subalterna respecto a la lengua catalana [...] «propia» no quiere decir «única» ni «preferente», cosa que constituiría una evidente discriminación, sino lengua «diferenciadora» y «específica»⁵.

Foro Babelen antzera, inolako ondorio juridikorik ez duen kontzeptu sinboliko soiltzat du *berezko hizkuntza* EABk. Berezkotasunaren interpretazio horren bidez, sektorerik atzerakoienekin lerratzen da EAB, eta Espainiako marko juridiko-linguistikoak berak eskainiriko aukeren behetik uzten du EAEko hizkuntza-politika, euskara hutsezko erabilera-esparruak funtsatzea ahalbidetzen duen tresnarik eraginkorrenari uko eginik.

2. Interpretazio soziolinguistikoa

Atal honetan, EABren dokumentuaren EAEko bilakaera soziolinguistikoaren interpretazioa arakatuko dugu, honako ikuspegi hauek aintzat hartuz: zer kontzeptu erabiltzen dituen errealitate soziolinguistikoa aztertzeko (2.1), eta zer ondorio ateratzen dituen bilakaera horretatik (2.2).

2.1. Ez omen dagoen hizkuntza-gatazka

EAEko egoera soziolinguistikoaren gainean EABren analisiaren ezaugarririk harrigarrienetako bat *hizkuntza-gatazka* kontzeptua erabat saihesten duela da, bai izena, baita izana ere. Ez dago erran beharrik soziolinguistikaren oinarritzko kontzeptua dela *hizkuntza-gatazka*, eta hizkuntza-ordezkatze prozesuak azaltzeko ezinbertzekoa. Funtsean, lurralde batean kokaturiko erkidegoak funtzio komunikatibo berak bideratzeko bi hizkuntza edo gehiago dituen egoerari iritzi ohi dio *hizkuntza-gatazka* soziolinguistikak.

Beraz, nabarmendu beharreko estreinako ezaugarria da hizkuntzen —eta ez lagunen edo erkidegoen— arteko auzia dela. Bigarrenik, gatazka egoera *iragan-korra* dela, eta irteera hauetako bat izan ohi duela: hizkuntza-ordezkatzea edo hizkuntza-normalizazioa (Ninyoles, 1972: 20). Elkarrekin komunikatzeko x hizkuntza komun bakarra duen erkidegoa funtzio bera bideratzeko y hizkuntza bakarra izatera eramaten duen prozesua da hizkuntza-ordezkatzea. Agerikoa denez, elebitasun-fasea dakar prozesu horrek. Fase horretan, Lluís V. Aracil soziolinguistaren formulazio zehatzaren bidez adieraztearren, y hizkuntza duen komunitatea-

5. “Documento sobre el uso de las lenguas oficiales de Cataluña. Primer manifiesto del Foro Babel”, 1997ko apirila, in Santamaría (1999: 284). Erranguratsua da agiriaren izenpetzaileen artean PSC Kataluniako Sozialisten Alderdiko kiderik bazen ere, Kataluniako PPK baino ez ziola babesa agertu manifestuari.

ren azpimultzo bilakatzen da *x* hizkuntza duen erkidegoa (Aracil, 1998: 80, *passim*). Nabarmentzekoa da, hala ere, elebitasun oro ez dela hizkuntza-gatazka. Erraterako, erkidegoaren zatiek zein komunitate osoak hizkuntza-erkidegotik kanpoko lagunekin komunikatzeko bertze hizkuntza bat edo gehiago jakiteak ez dakar hizkuntza-gatazkarik. Bigarren hizkuntzak erkidegoaren barruko hizkuntza-harremanak ere bereganatzen hastean soilik bihurtzen da hizkuntza-gatazka erkidegoaren elebitasuna.

Ordezkatze-prozesua gauzatzen den bitartean, *hizkuntza-mendekotasun egoeran* gaude. Prozesuaren mugari izaten da mendeko hizkuntzaren hitzunek hizkuntza nagusia bertakotzea (Aracil, 1998: 89, 16. oin-oharra, 94). Mendeko hizkuntza hitzunik nahiz erabilera-esparruak galduz joaten da, eta hizkuntza nagusiak gero eta interferentzia handiagoa eragiten du mendeko hizkuntzaren arlo guztietan (lexikoan, semantikan, fonetikan, morfologian, ortografian eta sintaxian), hizkuntzak bereizgarri dituen ezaugarriak arian-arian desagerraraziz (Junyent, 1992: 52-61). Horren harirat nabarmentzekoa da gaurko gazte euskaldun anitzek hain ohikoa duten euskarazko solasetan erdarazko erranaldiak tartekatze edota euskara zein erdara erranaldi berean nahasteko joera hizkuntza ordezkatze-prozesuaren adierazletzat jo izan dutela adituek⁶.

Normalizazioa, aldiz, *x* hizkuntzak komunitatearen barruko funtzio komunikatibo oro berreskuratzen joateko prozesua dugu, erkidegoa berezko multzo bilakatu, Aracilen formulazioari berriro heltzearen. *Y* hizkuntzak galdu egiten ditu bereganaturiko funtzio ugari, erkidegoaren barruko erabileretatik desagertuz eta, kasu gehienetan, komunitateaz bertzeko jendearekin komunikatzeko rola bertze hizkuntza batzuekin partekatuz edo bertze hizkuntza batzuen mesedetan galduz.

Oinarrizko premisa horiek finkaturik, berehala jabetuko gara hizkuntza-politikak «hizkuntza batekiko edo bestearekiko etsaigoa zeharka nahiz zuzenean» ez duela helburu edota «elebitasun ahalik eta orekatuena» (EAB, 2009: 23) bilatu behar duela aldarrikatzea erretolika hutsa dela. Era berean, gutxiagoturiko hizkuntza-erkidegoaren elebiduntzea ordezkatze-prozesuaren mugari delarik, «ez dagoela, zorionez, euskaldun elebakarrik» (EAB, 2009: 27) erran eta hori goraiptateak prozesu horien dinamikaren ulermen-gabezia uzten du agerian. Ordezkatze-prozesuen bilakaeraz oharturik jotzen du soziolinguistikak populazio elebakarra izatea — espainol, frantses edota ingeles hizkuntza-erkidegoek duten antzera— hizkuntza-normaltasunaren seinale (Sánchez Carrión, 1987: 264; Junyent, 1992: 51, 54).

Horrez gain, hizkuntza-gatazken dinamika-analisiari muzin egiteak kontzeptu-nahasmenen bat edo bertze eragiten dio EABri. Errate baterako: «euskal hitzun guztiak elebidunak dira, eta, gainera, bertakoa ere baden beste hizkuntza batean» (EAB, 2009: 27). Ez dago gutxiagoturiko hizkuntzaren hitzunek hizkuntza nagusia ikasten ez duten ordezkatze-prozesurik. Honako honetan datza, hain zuzen ere, hizkuntza minorizazio-prozesua: beren lurraldean bizi den populazioaren zati handi batek bertako hizkuntza seme-alabei transmititzeari uztean eta hizkuntza nagusia, aldiz, ikasi behar izatean, estatuaren hizkuntza-politikak hala diseinaturik

6. «Un altre fenomen que apareix sovint en les llengües en procés d'extinció és l'alternança de codi, com és per exemple passar de la llengua recessiva a la llengua dominant àdhuc dintre de la mateixa frase» (Dressler, 1987: 94).

(Sánchez Carrión, 1987: 215-216). Euskalduna gutxiagoturiko hizkuntza-erkidegoa delarik, espainola, hizkuntza nagusia, «bertakoa ere» badela aldarrikatzeak «demografia-egitura zaharkituriko gizartea da gurea, eta, gainera, haur eta gazte gutxiegi ditugu» moduko erraldien informazio-balio bera du. Hau da, tautologia hutsa, baieztapenak ez baitu subjektuaren ezaugarrien baitan bertan ez dagoen informaziorik ematen.

2.2 Euskalduntasuna *Outlet*

Eusko Jaurlaritzako HPS Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2006ko *IV. Inkesta Soziolinguistikoaren* datuak aipatuz, EAeko «16-24 adin multzoko herri-tarren % 57,5 dela elebidun» azpimarratzen dute behin betiko txostenaren egileek (EAB, 2009: 48). Datu horri *elebidun hartzaile* deritzotenaren (euskaraz ahozko zein idatzizko ulermena duena, hitz egiten ez badu ere) adin-multzo bereko ehunekoa gehitzen diote, kopurua «% 82,4raino» igoaraziz. Hortik «euskara gazteen hizkuntza» dela eratorri nahi dute (EAB, 2009: 48). Hala ere, inkesta horren beraren datuen arabera, euskaraz espainolez bertze nahiz euskaraz espainolez baino sarriago egiten duen EAeko 16-24 urte bitarteko adin-multzoaren ehunekoa % 23,5 baino ez da (Eusko Jaurlaritza, 2008: 46). Soziolinguistika Klusterraren Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketaren datuetara jotzen badugu, emaitzak ez dira hobekiak. Izan ere, V. neurketan, hori ere 2006an egina, honako euskarazko ehuneko hauek behatu zituzten EAeko 15 eta 24 urteko itxurako gazteen hizkuntza-erabileretan: 6,6 Araban, 8,1 Bizkaian eta 34 Gipuzkoan (Martinez de Luna, 2007: 66, Juaristi, 2007: 51, eta Diaz de Tuesta, 2007: 78). Metodologiaren aldetik, nabarmendu beharrekoa da *Inkesta soziolinguistikoak* galderen bidez jasotzen dituela datuak; Kale Erabileraren Neurketak, aldiz, zuzeneko behaketaren bidez. Ez dago erran beharrik horrek sinesgarritasun handiagoa ematen diola Soziolinguistika Klusterraren ikerketari. Adinari dagokionez, baina, behatuen adina intuizioz ematen dute neurtzaileek, behatuekin ez baitute hitz egiten (Altuna, 2007: 22, 24). Dena dela, bistan da HPSren inkestaren datuek nahiz Klusterraren behaketak emanikoek ez dutela *euskara, gazteen hizkuntza* gisako lelorik justifikatzen. Are gutxiago Klusterraren azken neurketak emandako honako datu honi erreparatzen badiogu: Bizkaian aurreko neurketatik (2001etik) jaitsi egin dela gazteen euskararen erabilera, % 9,5 izan baitzen 2001ean behaturiko erabilera (Juaristi, 2007: 51). Beheranzko joera hori are larriagoa suertatzen da Euskal Herriko herrialde populatuenari dagokion heinean.

Horretaz guztiaz gain, euskararen gizarte-erabileraren ikuspegi osoa zein den oharretako erabileraren kalitatea arakatzeko funtsezkoa dugu. Kuantitatiboki neurtzeko biziki zaila den arren, arestian aipatu hizkuntza nagusiak sorturiko interferentzia ordezkatzeko-prozesuen adierazletzat du soziolinguistikak (Junyent, 1992: 52-61), hizkuntzak berezko kode funtzionatzen duenez auziari eragiten baitio zuzenki. Nahiz eta erantzun egokia emateko ikerketa kualitatiboak beharko liratekeen, denok antzematen dugu, intuizioz baino ez bada ere, gaur egun kalean erabiltzen den euskara erdararen kalkoz beterik dagoela, gazteen hizkeran batik bat.

Dena den, ez dugu zientzia handirik behar aipatu euskararen erabileraren kalitatearen degradazioa sumatzeko, EABk darabilen euskalduntasunaren kontzeptua bera horren erakusle argia baita: «Euskarara hurbildu den oro hartu behar dugu

euskalduntzat, nahiz eta hurbiltze horretan maila pasiboraino baino iritsi ez» (26. or.). Hau da, euskaraz mintzatu ere egiten ez dena, baina euskarara «hurbildu» egin dena ere euskaldun omen da. Bertze ezein hizkuntzari aplikatzea irudikaezina gertatzeaz gain, metodologikoki arazo nabarmena dakar irizpide horrek. Izan ere, zein da euskararako «hurbiltze»aren neurgailua? Euskaltegian emandako oren kopurua? Azken batean, txostenaren idazleak eurak euskalduntasunaren kontzeptu horren zabalegia aitortu beharrean daude, «euskal hiztunen gaitasun erlatibo ezberdinek» hainbat esparrutan euskara erabiltzeko aukera «mugatu» egiten dutela ohartaraziz (27. or.). Beldur naiz sasikontzeptualizazio horren gibelean azken hamarraldietan euskaldunak biziki ugaritu direla eratoritzen ahal izateko asmoa ote denetz. Horrez gain, EABk euskararako «hurbiltze»ari horren garrantzi handia emanik, nabarmen dezadan aztoragarria begitantzen zaidala deus ere ez erratea etorri berriendako nahiz bertako erdaldunendako dohaineko oinarrizko mailako ikastaldien beharraz.

Gibel-solasa

Hizkuntza-legediaren aldetik, aztergai ditugun agirien ofizialtasunaren erregimenaren interpretazioa okerra da, eta oinarrizko txostenaren *hizkuntza-berezkotasun* kontzeptuarenak indargabetu egiten du euskara hutsezko zein euskararendako lehentasunezko erabilera-esparruak oinarritzeko tresna juridikorik behine-na. Arakatze soziolinguistikoari dagokionez, EAEko hizkuntza-erabileren bilakaeraz EABk egindako interpretazioa ez dator bat eskuragai ditugun datuekin. Izan ere, 16-24 adin-multzoaren euskararen erabileraren ehunekoak 25etik beheiti delarik, ez da onargarria euskara «gazteen hizkuntza» bihurtu dela aldarrikatzea.

Teoria-ikuspegitik, minorizazio-prozesuek berezkoa duten gatazka-dinamika aintzat hartzeari berari uko egiten diote txostenen idazleek. Hori egin beharrean, diskurtso politiko hutsaren eremuko den hizkuntzen arteko «bizikidetzaren» leloari baizik ez diote heltzen, hizkuntzen arteko «bizikidetz» hori mendeko egoeretan nolakoa den sartzeari muzin eginez eta hizkuntzen arteko «bizikidetz» lagunen artekoaren pare agerraraziz.

Oinarrizko txostenaren egileek ondorioztatzen dute duela «25-30» urte «baino erruz hobea» dela «gure hizkuntzaren gaurko egoera» EAEn (EAB, 2008: 24). Xabier Mendiguren batzordekideak ohartarazi duenez, ordea, «nafar Gobernuak ere berdin-berdin» erraten ahal du⁷ (Mendiguren Bereziartu, 2008: 4). Era berean,

7. Izan ere, 1986ko Nafarroako erroldako datuen arabera, bi urtetik goitiko biztanleriaren % 15,4k euskarazko trebeziaren bat zuela eta % 10,2k ongi mintzatzeko gai zela zioen. 2001eko erroldan, ehuneko horiek 20,9ra eta 18,8ra, hurrenez hurren, igo ziren (Gros i Lladós, 2007: 220 eta 232). 15 urtetik beheitiko biztanleei dagokienez, 2001eko erroldako datuen arabera % 34,9k euskarazko trebeziaren bat zuen, eta % 21,3a ongi hitz egiteko gai zen (Gros i Lladós, 2007: 221). Erabileraren aldetik, 1989tik ez da ia gorakadarik izan, I. Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketaren datuen arabera, 6,5 baitzen ehuneko orokorra, eta 2006ko neurraldian % 6,6 baino ez (Kasares, 2007: 92). Hala ere, zifra orokor hori Arabakoa (% 4,7, Martinez de Luna, 2007: 62) baino altuagoa da, eta Bizkaikoa (% 10,4) baino txikiago bada ere, Nafarroan ez da beherakadarik izan, 2001eko neurraldian 6,6 izan baitzen ehuneko Nafarroan eta 11 Bizkaian (Juaristi, 2007: 50). Haurren eta gazteen erabileretara jotzen badugu, fenomeno bitxia gertatzen da Nafarroan, 1989tik etengabe jaitsi baita haurren erabilera (% 9,8tik 1989an % 8,5era 2006an), baina gazteena, 1997ko neurraldian izan ezik, beti goiti joan da (% 5,3tik 1989an % 6,9ra 2006an). Bizkaian, aldiz, haurren zein gazteen erabilera beherantz dabil 2001etik, 16,5etik 15,4ra eta 9,5etik 8,1era, hurrenez hurren (Juaristi, 2007: 51).

nabarmenezkoa da behin betiko txostenean EABk «EAEn kokatutako Estatuko Administrazioaren eta Justizia Administrazioaren jokabidea» txarresten duela, «hogeita bost urteotan» ez batak ezta bertzeak ere ez baitu hartu «neurri eragin-garri nahikorik erabilera-eremu horietan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko», eta «euskararen presentzia esparru horietan hutsaren hurrengoa» delako (EAB, 2009: 33). Biziki harrigarria suertatzen zait halako kexuak agertzea «Osakidetza euskara beharkizun gisa eskatu duen lehen aldia» 2006an izan zela batzordeak berak aitorturik⁸ (EAB, 2009: 31). EAB Espainiako Estatuko administrazioaren zein justizia-administrazioaren euskalduntze-ekaz kezkatu badago, Eusko Jaurlaritzari galdetu beharko lioke, Mikel Basabe batzordekideak egin bezala, «noiz» izan den gai hori «EAeko eta Estatuko gobernuen arteko negoziazio mahairen batean» (Basabe, 2008: 5-6).

EABren txostenetik datu objektiboak dagozkien baieztapenak baino ez ditut arakatu, dokumentuen balizko proposamenei muzin eginez. Frogatzen saiatu naiz EAeko errealitate juridiko-linguistikoaren zein soziolinguistikoaren analisiak oinarritzeko akatsak dakartzala. Premisa okerretatik abiatuta, alferrikako lana da ondorioen kritika; premisek huts egiten dutenean, huts egiten baitu konklusioak ere. Bertzalde, egitate soilak dagozkien hainbat judiziotan huts eginik, are zailagoa da EABren proposamenei sinesgarritasuna ematea.

Ez dakit akats horien guztien gibelean EAeko bi alderdi nagusien arteko hizkuntza-politikari buruzko ituna errazteko asmoa zenetz. Balizko asmo horren porrota goiti-beheiti, ordea, txosten horien euskarrietan gauzaturiko itun oro urrun geratuko litzateke euskararen ezagutza nahiz erabilera orokortzeko edozein egitasmo eskaturiko gutxieneko baldintzetatik.

Aipatu bibliografia

- Agirreazkuenaga, I. (1996): "Administrazio foral eta lokalaren ezaugarriak normalizazio bidean", *Revista Vasca de Administración Pública*, **44**, (II), 1996ko urtarril-apirila.
- "Euskararen ofizialtasuna. EAeko kontsumitzaile eta erabiltzaileen Estatuaren aplikazio juridikoa", 2005eko martxoaren 16an eta 17an merkataritzan eta zerbitzugintzan hizkuntza-normalizazioari buruz Oñatin (Gipuzkoa) Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako jardunaldietan eskainiriko hitzaldia, <www.ieuskaraz.net/jarduerak/iker/merkataritza/agirreazku.pdf>.
- Altuna, O. (2007): "Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketa. Ikerketaren nondik norakoak", *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria*, **64**, 2007ko iraila.
- Aracil, Lluís V. (1998): "Egoera minoritarioaz", in X. Falcón (arg.), *Lluís Aracilen idazlan hautatuak*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo [Bego Montoriok eta Koldo Izagirrek euskaratua].
- Basabe, M.: "Euskara 21", datarik gabe, <http://blog.euskara21.euskadi.net/uploads/file/Batzordekideen%20ekarpenak/mikel-basabe_eus.pdf>.
- Baztarrika, P. (2009): *Babeli gorazarre. Bizikidetzarako hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra*, Alberdania, Irun.

8. Baztarrikaren beraren datuen arabera, «2008an, euskararen ezagutza ezinbestekoa zutenak Osakidetzako lanpostu guztien % 15,52 besterik ez ziren» (Baztarrika, 2009: 307).

- Diaz de Tuesta, J. F. (2007): "Euskararen kale erabilera Gipuzkoan", *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria*, **64**, 2007ko iraila.
- Dressler, Wolfgang U. (1987): "La mort de les llengües", *Límits Revista d'Assaig i d'Informació sobre les Ciències de Llenguatge* **3**, 1987ko azaroa [Albert Servitjek katalanera itzulia].
- Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordea (2008): *xxi. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak. Euskara xxi. mendeko hizkuntza bizia, egunerokoa eta noranahikoa. Oinarrizko txostena*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- , (2009): *xxi. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak. Euskara xxi. Itun berri batentzat. Gogoeta irekiaren ondorengo txostena*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (2008): *IV. Inkesta soziolinguistikoa 2006*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Gros i Lladós, M. (2007): *Recuperación del euskera en Navarra*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Juaristi, P. (2007): "Euskararen kale erabilera Bizkaian", *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria*, **64**, 2007ko iraila.
- Junyent, C. (1992): *Vida i mort de les llengües*, Empúries, Bartzelona.
- Kasares, P. (2007): "Euskara Nafarroako karriketari. 2006ko Kale Neurketaren emaitzen azterketa", *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria*, **64**, 2007ko iraila.
- Martinez de Luna, I. (2007): "Euskararen kale-erabilera Araban: 1989-2006", *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria*, **64**, 2007ko iraila.
- Mendiguren Bereziartu, X. (2008): "XXI. mende-hasierarako hizkuntza-politikaren oinarriak. Oinarrizko txostenari egindako ekarpena", 2008ko maiatza, <http://blog.euskara21.euskadi.net/uploads/file/Batzordekideen%20ekarpenak/xabier-mendiguren-bereziartu_eus.pdf>.
- Ninyoles, R. Ll. (1972): *Idioma y poder social*, Tecnos, Madril.
- , (1994) "España como país plurilingüe: líneas de futuro", in A. Bastardas eta E. Boix (zuz.), *¿Un estado, una lengua? La organización política de la diversidad lingüística*, Octaedro, Bartzelona.
- Pons Parera, E. (2010): "La llengua (en la sentència de 28 de gener [sic] de 2010)", *Revista Catalana de Dret Públic*, Espainiako Konstituzio Auzitegiaren 31/2010 epaiari buruzko zenbaki berezia, <http://www10.gencat.net/eapc_revistadret/recursos_interes/especial%20estatut/documents%20especial%20estatut/pdfs/06_Pons_llengua_vo_ca.pdf>.
- Sánchez Carrión, J. M. *Txepetx* (1987): *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*, autoedizioa, Donostia.
- Santamaría, A. (1999): *Foro Babel. El nacionalismo y las lenguas de Cataluña*, Áltera, Bartzelona.
- Solé i Durany, J. R. (1996): "El concepte de llengua pròpia en la normalització de l'idioma", *Revista de Llengua i Dret*, **26**, 1996ko abendua.
- Vilhar Trilho, X. (1986): "Notas sobre a caracterização sociolinguística do galego e princípios configuradores do vigente modelo legislativo regulador do seu uso público", in J. I. Ruiz Olabuenaga eta J. A. Ozamiz (arg.), *Hizkuntza minorizatu-en soziologia. Sociología de lenguas minorizadas*, Ttartalo [edizio-lekurik gabe].

